

BERTSO SORTA

Gaia: "Bullyng"

Doinua: Triste bizi naiz eta

- 1) Guk etxean daukagu
latza panorama,
bi hilabete dira
hil zitzaidan ama,
aitak ezin eraman
seme eta lana,
horregatik noa ni
izebarengana.
- 2) Ari naiz ezgutzen
oraindik herria
ikastola, jangela
dena da berria,
baina laguna ez da
atsegingarria
nire itxuragatik
deitu dit txerria.
- 3) Nabari da naizela
oso desberdina,
ondo moldatzeko nik
egin alegina,
iraindu naute eta
ematen dit mina
bakarrik nagoela
da gauza jakina.
- 4) Iritzi desberdina
izaten dut nik maiz
horrexegatik gela
beteta dut etxaiz,
esanez "baleten
Mikel ze ari haiz"
baina ez dit axola
ni naizeza bainaiz.
- 5) Gaur ere hurbildu da
gelako makarra,
da gorrotagarria
pertsonek zakarra
berriz ere kendu dit
nire irrifarra
egoera hau dago
aldatu beharra.
- 6) Bera da nire pena
denen erruduna
horixe aldatzeko
heldu da eguna
erakutsiaz ongi
nire nortasuna
etxaia nuen hura
bihurtuz laguna.